



GERNIKA 80 URTE GEROAGO

[DOKUMENTALEN ZIKLOA]

2017ko apirilaren 26an beteko da GERNIKAKO BONDARDAKETAREN 80. URTEURRENA. 1937. urtean, egun horretan bertan sortu zuen Picassok bere margo ezaguna, Gerniak pairatu zuen basakeria salatzen zuena. Gaur egun, bakezaletasunaren ikur bihurtu da obra hori mundu mailan. Arrazoi horiek guztiak direla medio, Euskal Museoak dokumental-sorta bat aurkeztuko du, euskal udalerrri horretan gertatu ziren gauza izugarriak ezagutzeko eta, hala, zorigaitzoko egun hori bizi izan zutenei omenaldia egiteko.

Aurkezpenak eta elkarrizketak Alberto López Echevarrieta kazetariaren eskutik.

1. SAIOA: APIRILAK 27 | OSTIRALA 19:30

“GERNIKA, ZURIBIDERIK GABEKO BONBARDAKETA”

Film hau erakutsiko da: “Guernika”, (Nemesio M. Sobrevila, 1937). 30 min.

Nemesio M. Sobrevilak zuzendu zuen film hau, bonbardaketa gertatu eta ordu gutxira grabatu ziren irudiak erabiliz. Material zinematografikoa Agfa laborategietara igorri zuen, Parisera, baina haiek ez zioten sekula itzuli zinegileari. Horren ordez, Italiako ikuspegi turistiko batzuk eskaini zizkieten, hots, hark igorritakoarekin zerikusirik ez zeukaten irudiak. Nazioartean salatu zen laborategi alemanen trikimailua, baina jatorrizko irudiak ez ziren sekula agertu. Filma erakutsi aurretik, afera horri buruzkoak azalduko zaizkie bertaratutakoei; izan ere, kontuak orrialde ugari hartu zituen atzerriko komunikabideetan.

Edonola ere, filmak balio dokumental izugarria du. Filmaren bidez ikus dezakegu zer-nolako exodoa gertatu zen Foru Hiribilduan, ikus ditzakegu hondakinak, oraindik kea dariela, eta euskal haurren deserria noranzko ezezagunetara bidean. Bere garaian, erbesteko Eusko Jaurlaritzak erosi zuen film hau, munduan barrena erakusteko.

Filma erakutsi ostean solasaldia izango da, *Gernika zaharra* taldeko **José Ángel Etxaniz** historialaria bertan dela.

José Ángel Etxaniz Ortuñez (Gernika-Lumo, 1954): “Gernikazarra” historia-taldeko eta Historia Garaikidearen Elkarteko kidea da. Industriaren eta enpresaren historia landu ditu bereziki, eta Gernikako historiari buruzko hainbat liburu idatzi ditu, bakarrik eta beste batzuekin batera. Besteak beste, hauek azpimarratu daitezke: “Talleres de Guernica S. A.-Astra. De fábrica de armas a fábrica de creación cultural” (2012); “JYPSA, 75 años en la historia de Guernica” (1992), Carlos Bacigaluperekin elkarlanean egina; eta bonbardaketarekin lotutako obra ugari, esaterako, “Sustrai Erreak. Guernica 1937” (2012). Juan Tomas Gandariasen biografia ere idatzi zuen, bai eta familiari buruzko hainbat liburu ere. Gernika-Lumoko bonbardaketan aditua da. Gaur egun, Urdaibaiko turismoari buruzko ikerketa bat egiten ari da.

2. SAIOA: MAIATZAK 4 | OSTIRALA 19:30

“GERNIKA, AHOTSAK SALATARI”

Film labur hau erakutsiko da: **“Gernikako txikizioa”** (Pedro Olea, 1979) 14 min. Ikuska saileko 2. zenbakia.

Pedro Olea zinegile bilbotarraren alea, “Ikuska” dokumental-sailaren barruan. Foru Hiribilduan estreinatu zen bonbardaketaren urteurrenaren bezperan, 1979an, Ikerketa Batzordeak urte horretan bertan antolatu baitzituen hainbat ekitaldi, XLII. urteurrenaren harira. Hainbat gizonak eta emakumeak, asko jada desagertu direnak, in situ gogoratzen dute bonbardaketak sortu zuen izu-laborria, eta, haien salaketekin batera, haurren marrazkiak ere erakusten dira, haien aitona-amonek zoritxarreko egun hartan sufritu zutenaren irudimenezko ikuspegia.

Filma aurkezteko, tartean izango da **Pedro Olea** zuzendaria, eta, filmaren osteko solasaldian, berriz, **Vicente de Palaciok** hartuko du parte.

***Pedro Olea** Bilbon jaio zen eta ekonomia zientziak ikasi zituen Sarrikon. Aldi berean, Zineklub Unibertsitarioaren ardura hartu zuen eta 8 eta 16 mm-ko filmak egin zituen. Madrilera joan zen, eta Zinema Eskola Ofizialean sartu; ondo joan zitzaionez, ekonomia-ikasketak utzi zituen, hartara, gehien atsegin zuen horretan aritzeko. 1964an graduatu zen, “Anabel” izeneko film labur bati esker. “Nuestro cine” aldizkarian idatzi zuen, eta hainbat lan egin zituen TVErantzat, besteak beste, “La ronca”, “El rastro de Ramón”, “Último grito”, Víctor Manueli buruzko saio berezi bat, “La la la” kantuari buruzko spot bat, Serrat protagonista zuena, eta “La ría de Bilbao”. Film luze handiak egin zituen gero: “El bosque del lobo”, “No es bueno que el hombre esté solo”, “Tormento”, “Pim, pam, pum fuego”, “Un hombre llamado Flor de Otoño”, “Bandera negra”, “El maestro de esgrima”, “Más allá del jardín”, “Tiempo de tormenta”, etab. Film horietako bi, “La casa sin fronteras” eta “El maestro de esgrima”, Hollywoodeko Oscar sarietarako aukeratu zituzten. Euskal zinemako izenburu ezagun batzuk ere bereak dira: “La casa sin fronteras”, “10 melodías vascas”, “Akelarre”, Gernikako bonbardaketari buruzko “Ikuska 2”, saio honetan erakutsiko dena, eta “Bihotzez” dokumentala. Antzerkian, honako hauek egin ditu: Antonio Galaren “Inés desabrochada”, Concha Velascorekin eta Paco Valladaresekin, eta “El pisito”, Asunción Balaguerrekin.*

***Vicente del Palacio Sánchez** historialaria da. Historiako irakasle gisa lan egin du hainbat institututan, erretiroa hartu arte. “Aldaba” aldizkaria sortu zuen beste batzuekin batera: Gernikan editatzen da agerkari hori, orain dela 34 urtetik. “Gernikazarra” historia-taldearen sorreran ere ibili zen: talde horrek 30 urte daramatza martxan. Gernikako historia landu du bereziki, batez ere XIX. eta XX. mendeetako alderdi sozialak, eta artikulu ugari argitaratu ditu “Aldaba” aldizkarian. Foru Hiribilduaren bonbardaketaren eta gerraostearen gaiak ere jorratu ditu, “Gernikazarra” taldearen barruan. Dozena bat lan kaleratu du; horien artean, nabarmentzekoa da “Sustrai Erreak II”, bonbardaketaren 75. urteurrena gogoratzeko egina.*

3. SAIOA: MAIATZAK 11 | OSTIRALA 19:30

"... ETA GUERNICA-REN OSTEAN, ZER?"

Film labur hau erakutsiko da: **"Gernika"** (Iñaki Elizalde, 1993). 15 min.

Picassoren "Guernica" gerraren izugarrikerien aurkako garrasi bat da; Elizalderen "Gernika", berriz, izenik gabeko gerra baten izugarrikerien kontrako garrasia da: arrazakeriaren, bortizkerien, zentzurik gabeko heriotzen gerraren kontra egiten den garrasia. Alde nabarmen bat dago bi lanen artean, hala ere. Filmean, baliorik gabe uzten dira Picassok margolanean iradoki zituen itxaropenak, ez dago kandela pizturik, ez dago bidea erakuts dezakeen argirik, ez dago txoririk, ez eta zimeldu gabeko lorarik ere. Denboran parentesi bat irekitzeko aukera baino ez da gelditzen: pentsatzea gure historia osoko bortizkeriak markatzen dituen tik-tak hori eten dezakegula, eta, norbaitek erloju hori berriro abiaraztean, pertsonok jakingo dugula elkar tratatzen gizaki gisa, horixe baikara. *"Zabal dezagun elkarrekin etorkizunaren azken atala"*: aitona-ilobek esaten dute Paul Eluarden esaldi hori filmean, hitzik gabe, Picassoren margolanaren aurrean.

San Petersburgoko Jaialdiko Epaimahaiaren Sari Berezia eta Granadako Jaialdiko Epaimahaiaren Aipamen Berezia jaso zituen film honek, eta, horrez gainera, Parisko Georges Pompidou Zentroko Zinema Jaialdirako aukeratu zuten, bestek beste.

Filmaren osteko solasaldian, **María Jesús Cava** historialaria izango da.

María Jesús Cava Mesa, bilbotarra, Filosofia eta Letrak ikasi zituen (Historia Moderno eta Garaikideko Lizentziatura) Deustuko Unibertsitatean, Bilbon, eta instituzio horretan egin zuen doktore-tesia ere, Historia Moderno eta Garaikideari buruz, 1985ean (Bikain cum laude). Bekadun aritu zen Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatean, La Rábidako Unibertsitate Hispanoamerikarrean eta British Council erakundearen. Ingeles Kulturari, Historiari eta Hizkuntzari buruzko ikasketak egiten jarraitu zuen East Anglia Unibertsitatean (Norwich), Oxforden eta Londresko Westminster Unibertsitatean. Historia Garaikideko katedraduna da Deustuko Unibertsitatean (Bilboko campusa) eta, era berean, Batxilergoko katedradun numerarioa da. Historia Unibertsal Garaikidea, Nazioarteko Harremanen Historia eta Gaur Egungo Mundua irakasgaiak irakasten ditu, eta, gainera, eskolak eman ditu doktoradutzetan eta Eurokulturari buruzko Masterrean, Deustuko Unibertsitatean. Irakasle gonbidatu gisa jardun da Manchester eta Edinburgoko unibertsitateetan. Historiako Saila zuzendu zuen, eta, gero, Humanitateetako Saila, 2015era arte, eta, 1989tik 2011ra bitartean, Historiako Sokrates-Erasmus programen zuzendari-koordinatzaile aritu da. Liburu ugari idatzi ditu; nabarmentzekoa da hauxe, adibidez: "Memoria colectiva del Bombardeo de Gernika"(Bilbao, 1996).

4. SAIOA: MAIATZAK 18 | OSTIRALA 19:30

"GUERNICA, ARTEA EDO MITOA?"

Film labur mitiko hau erakutsiko da: "*Guernica*" (Alain Resnais eta Robert Hessens, 1950). 15 min. Frantsesezko jatorrizko bertsioa gaztelaniazko azpitituluekin.

Film honi esker, nazioarteko ospea lortu zuen Alain Resnais zinemagile frantsesak; gerora, zinemaren historiako film benetan garrantzitsuak egin zituen Resnaisek, hala nola "*Hiroshima, mon amour*", "*L'année dernière à Marienbad*" eta "*La guerre est finie*". Film laburraren hasieran, Gernika suntsituaren argazki bat agertzen da; poliki-poliki, horren gainean agertzen doaz Picassok bere obra handia prestatzeko egin zituen hainbat margo.

Proiekzioaren aberasgarri, María Casares aktoreak Paul Eluarden poema bat irakurtzen du. Poeta frantses nabarmena izan zen Eluard: dadaismoa eta surrealismoa jorratu zituen, eta Gala Dalirekin egon zen ezkontuta. María Casares zinemako eta antzerkiko aktoreak arrakasta bildu zuen Frantzia, hantxe egon baitzen erbestean, Santiago Casares Quirogaren alaba zelako, hots, Azañaren agintaldian Errepublikako ministro izandakoaren alaba.

Filma erakutsi ostean, Picassoren "Guernica" koadroa aztertuko du **Alfonso Carlos Saiz Valdivielso**.

***Alfonso Carlos Saiz Valdivielso:** Zuzenbidean doktorea, idazlea eta kazetaria. Zuzenbide Konstituzionala irakatsi du Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean eta dozena bat liburu argitaratu ditu, askotariko gai buruzkoak, hala nola, "Triunfo y tragedia del periodismo vasco", "Indalecio Prieto, crónica de un corazón", "Miguel Fleta, memoria de una voz", "Iniciación al Derecho Político"... Trantsizio-garaian, Bilboko Arte Ederren Museoko Gobernu-Batzordeko kide izan zen, eta, urte haietan, El Sitio elkarte berreraikitzearen alde egin zuen lan, elkarte horretako presidente ere izanik. Hirurogeitik gora erakusketako komisarioa izan da Espainian, Europan eta Iberoamerikan. San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiako akademia-kidea da.*

Informazio gehiago

Euskal Museoa Bilbao Museo Vasco | Prentsa eta komunikazioa

944155423 | lidia.elola@euskal-museoa.eus | www.euskal-museoa.eus

